

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GETARIAKO UDALA

Praktiketako funtzionarioa izendatzea

Alkatetzak 2022ko urriaren 19an, B22/0499 dekretu bidez, Imanol Agirre Manterola praktiketako funtzionario izendatzea erabaki zuen Arkitekto lanpostua betetzeko. Lanpostua A Taldeko A1 Azpitaldean eta Administrazio Bereziko eskalan sartuta dago.

Praktiketako funtzionario izendapena 2023ko urtarrilaren 2an sartuko da indarrean eta 18 hilabeteko iraupena izango du.

Praktikaldia gaindituzat hartzeko, deialdia arautzen duten oinarriek xedatzen duena izango da kontutan.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote udal honetako alkateari, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki jotako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Getaria, 2022ko urriaren 19a.—Haritz Alberdi Arrillaga, alkatea. (6584)

AYUNTAMIENTO DE GETARIA

Nombramiento funcionario en prácticas

Con fecha del 19 de octubre de 2022 la Alcaldía, mediante Decreto B22/0499, acordó nombrar funcionario en prácticas a D. Imanol Agirre Manterola para cubrir el puesto de Arquitecto. El puesto de trabajo está incluido en el Subgrupo A1 del Grupo A y en la Escala de Administración Especial.

El nombramiento como funcionario en prácticas entrará en vigor el 2 de enero de 2023 y tendrá una duración de 18 meses.

Para considerar superado el período de prácticas se estará a lo que dispongan las bases reguladoras de la convocatoria.

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter previo a la interposición del recurso contencioso-administrativo, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Alcalde de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. No obstante, podrá interponerse cualquier otro recurso que se estime oportuno.

Getaria, a 19 de octubre de 2022.—El alcalde, Haritz Alberdi Arrillaga. (6584)